



www.pixkanakakaskari.org/hazia

Merkatuko erreferentziak



Eurostoxx50: **-%9,37**
Ibex35: **-%3,08**
Bono 10A: %1,43
KPI: %0,3 (ots)

2022 metatutako emaitza

-%1,41

Zorroaren banaketa

Errenta finkoa %72,7
Err. aldakorra %22
Inb. alternat. %5,3




Martxoa 2022

Gerraren menpe

Martxoan zehar, hegakortasuna izan da joera nagusia. Errenta aldakorreko merkatuek portaera desberdina izan dute: Estatu Batuetan eta Japonian susperraldi bat ikusi duten bitartean, Europan sufritzen jarraitzen dugu gerraren gertutasunaren eraginaren ondorioz.

Susperraldi joera dagoela dirudien arren, gerraren ziurgabetasunak eta ekonomian duen eraginak merkatuen bilakaera baldintzatu dezakete denbora luzez.



Inbertsio alternatiboak

Azken urteotan, interes-tasa baxuek eta aktibo tradizionaletatik kanpo inbertsio aukerak bilatzeak horrelako produktuetan egiten dugun inbertsioa handitzera eraman gaitu.

Abantailak: dibertsifikazioa eta deskorrelazioa dakarte inbertsio tradizionalarekiko, eta errentagarritasun handiagoa lortzeko itzaropena.

Eragozpenak: oro har, ilikidezia handiagoa, ohiko aktiboetatik eta merkatu arautuetatik kanpo egoteari datzekion aktiboetan baino malgutasun txikiagoko eragiketak, eta horrez gain eguneroko likidazio-baliorik ez izatea.

Gakoa inbertsioa BGAEko bazkideen kolektiboaren ezaugarrietara egokitzea da.

Inbertsioa 8 edo 10 urtez mantentzeagatik ilikidezi-prima handi bat eskeintzen duen proposamen bat ez da modu berean ikusten bazkideek 20 urteko inbertsio horizonte bat dutenean edo erretiratuta daudenean eta dirua gaur bertan ateratzeko aukera dutenean.

Inbertsio alternatiboa - HAZIA

